

ERMUKO BANDIA ETA SANTA CECILIA EGUNA

1914. urtian sortutako Ermuko bandiak aurtan 80 urte beteko zitxuan, 1973 urtian apurtu ein ez bazan. Martxan emon zitxuan urtietan direktore modura musiko bata bestia baiño hobiauak ezagutu zitxuan: Santiago Mallagarai "Tanborilero zaharra", Patri Gorosabel "Txaleko", Cosme Zubizarreta, Luis Albizu "Luis txikixa" eta Moises Gorosabel.

Luzaruan hillian behin kontzertu bat emoten zeben. Horraz gaiñera, egun

izaten zan!. Gero, seirak aldera, musikuak danak batera armosau eitten zeben; galletak eta koñaka (ahua berotzeko ei zan). Eta segixan pasakallian urtetzen zeben, kaleik-kale. Geraldixua eitzen zan lekue-tan mazurkak, balsak, pasodobliak, habanera... entzuterakuan, herriko jentia-k gustora eitzen zeban dantzaz.

Goizeko zazpirak baiño lehen, pasakallesa amaitxuta egon bihar izaten zan, mezia orduantxe hasten zan eta. Zortzire-



1955ean Cosme Zubizarretari egindako omenaldia.

haundi guzti-guxtixetan, Aiuntamientu zaharreko balkoixik kontzertu zoragarriak eskeintzen zitxuen.

Uda aldera, gero, hasi bai San Pedro hurrengo domekan eta San Lorentzo eguneraiño, domeka gabero bailabliak egoten zian plazan. Hamaika berba goxota deklaraziñu artian dantzatutakuak dia orduko "agarrauak"!

Inguruko herrixetan be Ermuko Bandiak "renombre" haundixa euki zeban. Durangaldeko herri guztixetako jaixetara juaten zan, eta eibartarrak be San Juanetan desiatzen egoten zian hemengo Bandia juateko, beti-beti propiñiak juten zebela-ko.

Bandiaren egunik haundixenetaria kua Santa Cecilia eguna izaten zan. Izena be hortitxik hartu zeban, "Santa Cecilia Bandia". Goizian goiz hasten zan txapliu hotsa. Bostetarako herri osua esnatu bihar

tan, danak biharrera!.

Illuntzian, Balerionian edo Patxiñeko tabernan kontzertua eta afarixa egoten zan. Eta hortxe amaitzen zan egunoi!

Santa Cecilia egun hau aurtan be ospatzekotan dia Bandiari errelebua hartu doutsienak.

Hil honen 22xan, Santa Cecilia eguna, arratsaldeko 7retan Meza Kantaua. Barixakuan, hillaren 25ean, Santiago Elizan dantza eta musika emanaldixa Pispillu, Abeslariak, Alboka, Txindurri eta Txistu eta Soñu taldien eskutik.


Bixamonian, zapatuan, parte hartutako guztixak alkarrekin bazkaltzekotan dia.

Estibalitz Gonzalez

Eskerrikasko Alejandro Zubizarreta, Joseba Idigoras eta Ignacio Urretari.

HARATEGIA - URDAITEGIA

P. ARAMBERRI



- * Bertoko txahala * Urdai egosia
- * Idi txuleta * Etxeko txorizua
- * Berton hildakoa * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65



**Pub
SCORPIO**

Zubiaurre, 21 behea
ERMUA

**ZABALA
BURDINDENDA**

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIAK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

ELUR

ESTETIKA • EDERGINTZA

Behin betirako depilazioa
(Epilaterm metodoa)

Goienkale, z/g. • Telefonoa: 17 60 52